

| 2017ko KIROL FEDERATUEN SARIAK | | |
|--------------------------------|--|---|
| FEDERAZIOA | IZENA | MEREZIMENDUAK |
| MENDIA | Urdaburu M.E. | Klubari, 75. urteurrenagatik. |
| | Pol Pol M.T. | Klubari, 75. urteurrenagatik. |
| | Trintxer M.T. | Klubari, 25. urteurrenagatik. |
| NEGUKO KIROLA | ROSA ZUBELDIA | 15 urte daramatza klub Txuri Urdinarekin elkarlanean, horietatik 8 Presidente lanetan. Kluba abian jarri zenetik % 50 hazi da jokalariei zein sozio kopuruari dagokionez. Langile nekazina da. Klubaren kontuak saneatu eta harrobia sustatzeko lan handia egin du, eta, horri esker, hainbat arrakasta lortu ditu behe-mailako kategorietan, hala nola kategorio gorena eta Koppe Kopa lortzea 2015-2016 denboraldian eta liga irabaztea 2016-2017 denboraldian. Emakumezkoen kirolaren aldeko apustua ere egin du, eta hainbat arrakasta lortu ere. |
| TRIATLOIA | MARTA SAN MARTIN | 4. mailako federazioko ofizial izan da urte askotan, baita hainbat probetako delegatu tekniko eta Euskadiko ofizialen arduradun ere. Denok maite dugu Marta, eta kirolaren alde egin duen lanak kirolak berezko dituen baloreak transmititzen ditu. Proiektuek arrakasta izateko beharrezko diren lanak gauzatu ditu. Eskerrik asko, Marta. |
| BEISBOLA/SOFBOLA | ELENA AYUSO | 15 urte baino gehiago daramatza maila gorenean jokatzeko. Orain 3 denboraldi iritsi zen Atlético San Sebastián klubera, eta bere esperientziak eta pasioak bultzada handia ematen lagundu zion taldeari: Ligako bi titulu eta Erregein Kopako titulu bat lortu zituzten, eta bi horietan funtsezko papera jokatu zuten jaurtizaila eta bateatzaila lanetan. 2017an MVP (balio handieneko jokalariei) izendatu zuten bi txapelketa nagusietan (Liga eta Kopa), eta zurrerik bere denboraldi onena lortu zuen urte horretan. |
| HERRI KIROLAK | JOSE RAMON IRURETAGOiena "IZETA II" | Harri-jasotzaile jardunean izandako ibilbideagatik. 50 urte bete zituen, 100 kiloko kubikoa 50 aldiz altxatzea lortu zuen bi eskuz, eta 100 kiloko zilindrikoa 50 aldiz esku batez, hori guztia 18 minutu eta segundo batean. |
| ESKUBALOIA | SOCIEDAD HONDARRIBIA KIROL ELKARTEA | Sociedad Hondarribia Kirol Elkarteak 16 urtez antolatu du 1. urteko infantileztako prestakuntza-torneoa Hondarribian. Aurtengo edizioa kontuan hartuta, eskubaliko 2.000 jokalarik baino gehiagok hartu dute parte torneo honetan (gizonezkoak zein emakumezkoak), eta horietako batzuek kategorio gorenetan jokatu dute, baita nazioarteko txapelketetan ere. |
| GIMNASIA | NEREA PEREZ SISTIAGA | Aurreko urteko ekainean, Espainiako Banakako Txapelketako txapelduna izan zen Nerea, senior kategorian. |
| URPEKO JARDUERAK | IÑAKI ARAMBURU SANZ | Gipuzkoako Federazioko Presidenteordea da 2004tik, baita Pasaiko Entrenamendu eta Teknikifikazio Zentroko arduraduna ere. Euskal Federazioko batzordekide da 1996tik. |
| | CARLOS ARRESE-IGOR ETXEBURUA | Gipuzkoako Federazioko Presidenteordea izan zen 2000 eta 2004 urteen bitartean, eta diruzaina 1992tik gaur egun arte. Euskal Federazioko batzordekide da 1992tik. |
| KARATE | CLUB BERA BERA de Karate | Azken hamarkadan izandako ibilbideagatik, desgaitasunaren aldeko ekitaldi ugari egin dituelako eta kide guztiak berdinak direla erakutsi duelako. Egun, talde hau biltzen duen sail bat du Gipuzkoako Federazioan, parakatea garatzeko espazioa eskaintzen duena. Horrez gain, Bera Bera klubak domina ugari bildu ditu estatu zein erkidego mailan, eta egitura tinko eta gogorrene erreferente bihurtu da. |
| KIROL EGOKITUA | AMAGOIA ARRIETA ARRIETA | 1997tik aurrera kirol-ibilbidean egindako esfortzuagatik. Estatuko txapelketa absolutuetan parte hartu du, Boccia espezialitatean, hain zuzen ere. 2015/16 denboraldian emaitza onak izan zituen, eta, 2016/17 denboraldian, bikainak: 5. sailkatu zen BC2 kategorio nazionalan eta 3. sailkatu zen taldekako BC1-BC2 kategorian. Sevillan jokatu ziren munduko Boccia txapelketako banakako probetan parte hartu zuen estatuko lehen kirolaria izan zen, eta honako emaitzak lortu zituen: lehen postua taldekako modalitatean eta laugarrena banakako modalitatean, kategorio nazionalan. 2017ko Bisfeld European Txapelketan 10. postua eskuratu zuen banakako kategorian, BC1ean. |
| HALTEROFILIA | JUAN ANTONIO MENDIZABAL | 1968tik darama jardunean halterofilia, eta Gipuzkoako Halterofilia Federazioko Presidente izan zen 2000 eta 2004 urteen artean. |
| ARRAUNA | AYUNTAMIENTO Y PUERTO DE PASAIA | Gipuzkoako Arraunketa Federazioarekin batera egindako lanagatik eta emandako laguntzagatik. |
| SASKIBALOIA | FRANCISCO JAVIER IRAETA ALVAREZ | 1985/86 denboralditik gaur egun arte entrenatzaile eta taldeko delegatu gisa izandako ibilbideagatik. |
| BILLAR | IKER ANDONI ECHEVERRIA RODRIGUEZ | Gipuzkoako honako tituluetan txapelduna izan da: Elite Liga, Superliga, Pool Bola-8, Pool Bola-9, Pool Bola-10, Snooker eta Kopa. Espainiako Kopako txapeldunordea, 3. sailkatua Espainiako Txapelketan eta 4. sailkatua estatuko rankingean. |
| HOCKEY | ALBERTO ESSERY - IÑIGO ESPINOSA-JUAN LLOP-JAVIER MARTIN-JOQUIN BERACOECHA-MIKEL LOPETEGI-JESUS GOROSPE | Espainiako Masters 60+ (beteranoak) selekzioko kide da, eta munduko eta Europako hainbat txapelketetan parte hartu du. 2017ko abuztuaren 19tik 27ra Glasgoven egindako Europako Txapelketan hartu zuen parte azkeneko. Kirol-jarrera eta izpirituaren adibide da bere ibilbide luzeagatik, eta hockeyaren baloreak sustatzeagatik. |
| BOXEO | ABEL SANTIAGO | Federazioko medikua. Federazioarekin elkarlanean dihardu, eta kirolarietako laguntzen die eskuzabalki; boxeo-ekitaldi guztietara doa ahal duen guztian laguntzera. |
| EHIZA | IOSU BERNARAS OIARZABAL | 2017ko Espainiako San Huberto Ehiza txapelduna (altxatzaileak), Navas del Rey herrian (Madril). 2017ko Munduko San Huberto Ehiza txapelduna (altxatzaileak), Herm herrian (Frantzia). |
| ARKU TIRAKETA | KORO BAREA UNZUETA - NIEVES PALACIOS HERNAEZ - M ^o TERESA SÁNCHEZ CASTILLO | Koro Barea (Espainiako txapelduna 2014 eta 2015ean), Nieves Palacios (Espainiako txapelduna 2016an), M ^o Teresa Sanchez (Espainiako txapelduna 2017an). Azken lau urteetan Espainiako Arku Tiro Txapelketa dominatzeagatik. Donostiako Diarco Klubeko kideak. |
| GOLF | M ^o PAZ IBARGUCHI PUENTE | Ohiko epailea Espainiako Txapelketetan infantil, alein eta benjamin kategorietan, Errege eta Erregein Kopetan eta zirkuitu profesionaleko hainbat txapelketetan. Real Club de San Sebastiáneko Batzordeko Presidente izan da hamabi urte, Federazioko Zuzendaritza Batzordeko kide zortzi urtez, eta batzarkide epaileen estamentuen izenean 2010era arte. 1984tik 2010era arte epaile gisa izandako ibilbidea aitortzeko. |
| XAKEA | CLUB DE AJEDREZ HONDARRIBIA MARLAXKA | Ofizialki 1980an jaio arren, 60ko hamarkadatik da Bidasoako xake-zalatasunaren oinarreko. Gipuzkoako titulu ia guztiak eskuratu ditu, banakako zein taldekako kategorietan. 1986ko Euskadiko Taldekako Txapelketako lehen garaila izan zen, eta titulu hori 6 aldiz lortu zuen. Euskadiko klub sarituna da. Klub honetako kideak Gipuzkoako, Euskadiko zein estatuko xakearen historian izan dute garrantzia, eta bere ordezkariak arrakastak eman dizkiete Gipuzkoako xakeari kategorio guztietan. Azpimarratzekoa da klubak adin guztietako txapelketak zein ekitaldi solidarioak antolatzeko egindako lana. Klubeko kide da Enrique Oiarzabal nazioarteko epailea. |
| ATLETISMO | ODEI JAINAGA LARREA | Eibar Kirol Elkarteak kide da xabalina espezialitatean, eta honako arrakasta hauek izan ditu: Espainiako promesa errekorra: 77,66 metro. Errekor absolututik 1,22 metrora. Euskadiko Absolutuko errekorra: 77,66 metro. Espainiako XabalinaTxapelketa Absolutuko txapelduna. 1. sailkatua Erkidego Federazioetako Espainiako Txapelketan. Espainiako Promesa txapelduna. Nazioarteko absolutua izan da honako nazioarteko txapelketa hauetan: Europako Taldekako Txapelketa Lillen (Frantzia). 7. sailkatua Europako 23 azpiko Txapelketan Bydgoszcz-en (Polonia). 11. sailkatua Europako Jaurtiketa Kopan, Vecindarian. 17. sailkatua. |
| AUTOMOBILISMOA | PATXI HOYOS | 1976an debutatu zuen Rally Vasco Navarrron, eta orduz geroztik 150 probetan baino gehiagotan hartu du parte Seat 124 modelo desberdinekin, baita BMW 325i eta BMW M3 modeloekin ere. 35 urte eta gero, 2011n, kaskoa alde batera utzi zuen, baina lehiaketa-automobilismoaren munduan jarraitzen du. Orduz geroztik, esfortzu guztiak bere semea laguntzera bideratzen ditu, hura ere pilotu dena. Denok ezagutu eta estimatzen dugu; kirol-probak eskuzabalki antolatzen laguntzen du, eta prest dago behar duen edozeini laguntzeko, irribarrea ahoan. |
| BOLOAK ETA TOKA | JOXE RAMON SANZ ZALAKAIN | Gazte-gaztetik hartu du parte kirol-proba desberdinetan, baina kasu honetan ez dago hemen bere kirol-jardueragatik, baizik eta boluntario gisa egindako lanagatik. Urteak dira Hernaniko Elur-Txori elkartearen elkarlanean hasi zela, lagun batzuei laguntzen. 8 urtez izan da Presidenteorde, kirola sustatu du eta denei laguntza eskaini die, trukean deus eskatu gabe, soilik besteen beharrianak asetzeari; hori bai hori boluntarioa. |
| JUDO | MANUEL AGUIRRE AGUIRRE | 40 urtez epaile-lanetan jardun da eta ezaguna da nazioartean; Bartzelonako Olinpiadako finaletan epaile jardun zuen, eta garai hartan Espainiako Judo Federazioko Epaileburu izan zen. |
| MOTOZIKLISMOA | REAL MOTO CLUB DE GUIPUZKOA | Gipuzkoako Real Moto Club elkarteak 1915ean sortu zuen motoziklismoarako zalatasuna zuten gazte gipuzkoar talde batek. Taldearen lehen helburua Gipuzkoan motoziklismoa praktikatzeko eta sustatzeko izan zen. 100 urte baino gehiagoko historian hainbat eta hainbat jarduerak egin ditu, eskuz esku joan direnak motozikletaren eboluzioarekin, hiriaren urbanizazioarekin (kirol-jarduerak egiteko guneak markatu zituen) eta eboluzio politikoa eta sozialarekin. |
| PIRAGUISMOA | JOSE IGNACIO GALARZ BUSTO | 1945ean Iruen jaioa. 1965ean Santiagotarrak klubaren sortzailetako bat. Bi urte ondoren, Bidasoako nazioarteko jaitsierako lehen edizioaren antolakuntzan parte hartu zuen. 1968ko Otsailean, Gipuzkoako Piraguisismo lehen presidentea izendatu zuten. Gaur egun Santiagotarrak elkartearen laguntzen jarraitzen du. |
| SURF | AXI MUNIAIN | Gipuzkoako surfari handienetakoa, Gipuzkoan zein mundu-mailan. Urteetan zehar esperientzia bilduz joan da, arriskuak gainditu eta poztasunak lortu ditu. Jaiotzaz konfiantza handia du beregan, eta bere burua gainditzeko gogo asko ditu. Hori guztiari esker, aurtun Axik munduan inoiz surfeatutako olatu erraldoi eta arrisksuena harrapatu du Nazarán. Balentria hori lortu duen lehen euskalduna da, baita munduan lortu duten bakarrenetakoa ere, eta, ondorioz, nazioarteko mapan kokatu du Gipuzkoa; izan ere, 5. aldiz jaso du Los Angelesko "XXI" sarirako izendapena. "Surfeko Oscar" izenez ere ezaguna. |
| OLINPIAR TIROA | XABIER AZPEITIA BERISTAIN | Tiratzaila gisa lortutako arrakastengatik. |
| TXIRRINDULARITZA | IRENE CAMINOS YARZA | 2017an lortutako arrakastengatik. 3. sailkatu zen junior-senior kategorian (kategoria mistoa). 6. sailkatua Euskadiko Elite Kategorian (kategoria mistoa). 2. sailkatua Espainiako Emakumezkoen Elite kategorian. 5. sailkatua Munduko Kopako finaletan, Emakumezkoen Elite kategorian. 3. sailkatua Munduko Txapelketako Emakumezkoen Elite kategorian. 4. sailkatua Munduko Taldekako Txapelketan. |
| BELA | IKER ALMANDOZ | Iñigo Jáuregui, Borja Ponte eta Eneka Juaneak osatutako Garatu taldeko patroia. 2017an honakoak eskuratu zituzten: 1. sailkapena Frantziako prestigiosoko Spi Ouest estropadan (J80 monotipoa); 2. sailkapena Espainiako Txapelketan (J80); 2. sailkapena Txapeldunen Kopan (J80), 1. sailkapena Frantziako Txapelketa Nazionalean (J70); 2. sailkapena Espainiako Kopan (J70). |
| HIPICA | CLUB HIPICO LISTORRETA | Bere kirol-ibilbideagatik eta 1997tik kirol federatua sustatzeagatik. |
| ESGRIMA | PEDRO CARNICER ALFONSO | 10 Aldiz Munduko veterano txapelketan parte hartu du. Europakoan berriz, zazpi aldiz. Estatuko III. mailako rakinean 3 denboralditan lehen postuan amaitu du. II. Mailan Estatuko bi azpitxapelketa irabazi ditu. Mailan berean, zazpi denboralditan rankineko lehen postuan amaitu du. Gaur egun Esgimako munduan laguntzen jarraitzen du. |